

Tolosako Udalak inauterietako diru laguntzak arautuko ditu

Ordenantza berriak diru laguntzetarako prozedura zehatzagoak sortuko ditu eta inauterien «izaera propioari» eustea du helburu, besteak beste // **2**

Hamaika pertsona ari dira mintzalagunan Zizurkilen

Gidari lana egingo duten euskaldunak behar dituzte // **6**

«Oso pozik nago, lehen aldia baitut Master Cupeko finalean»

MIREN LARRARTE
PILOTARIA // 7



EUSKARA HITZEKIN JOLASEAN

Euskararen Egunaren harira, hamaika ekitaldi izan ziren atzokoan eskualdean; Galtzaundik proposatutako Hitzolariak ekimenarekin bat eginez, hitz asmatuekin edo zaharrekin jolasean aritu ziren herritarrek // **4-5**

ASIER IMAZ



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA , GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazio guztia:

KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484
943 69 02 97

Inauterietako diru laguntzak arautuko ditu Tolosako Udalak

Ordenantza berriak «inauterien izaera propioari» eustea du helburu; abenduan zaratari eta segurtasunari buruzko azterketaren emaitzak plazaratuko ditu udalak

Itzea Urkizu Arsuaga

Joan den osteguneko osoko bilkuran, udalbatzak aho batez eman zion hasierako onarpena, inauterietako diru laguntzak eta antolaketa arautzeko ordenantza berriari. Testua bera udalbatzako alderdien arteko elkarlanetik sortu da, eta plenora helarazi aurretik herritarrei aurkezteko tarte ere hartu dute, bilkuran zehaztu zuten.

Bi helburu nagusiri begira sortu dute araudi berria: batetik, inauterien bueltako diru laguntzak eskaintzeko prozedura zehatzagoak sortu nahi izan dituzte eta, bestetik, inauterien «izaera propioari» eutsi, eragile guztien jarduna babestu eta segurtasuna bermatu nahi dute, nolabait.

Horrela, diru laguntza eskatzen duten herritarrek zein dokumentazio eta datu aurkeztu beharko dituzten ere zehaztuko du ordenantzak, laguntza jasotzeko bete beharreko baldintza eta irizpideekin batera. Inauterien inguruan zeresan eta kezka handiena piztu ohi duten gaiak erdigunean jarri, eta horiei ordenantzaren bitartez erantzuna ematea da udalbatzaren nahia eta, bide horretan, diru laguntza jasoko duten talde eta herritarren betebeharrak ere zerrendatu egingo ditu testu arautzaileak: «Berdintasun irizpideak, alkohol



Berdintasunak eta euskarak pisu nabarmena izango du laguntzetan. J. ARTUTXA

kontsumoari dagozkionak, ordutegiaren ingurukoak, txarangekin loturikoak, ibilbideari buruzkoak eta musikaren bolumena arautzeko sortutakoak».

Ordenantza horren lehen pausoak inauterietako eragileekin partekatzeak, udalak bilera irekia egin zuen duela zenbait aste. Hitzordura espero baino herritar gutxiago bertaratu zela-eta, Aitzol Garcia EH Bilduko ordezkariak «kezka» azaldu zuen plenoan: «Arduratuta gaude, bilera irekiko parte hartzea oso eskasa izan zelako. Gure ustez, gober-

nuak neurriak hartu beharko litzuke parte hartzea sustatzeko».

Olatz Peon alkatea ados azaldu zen Garcíaren iritziarekin, eta iazko balorazioan jasotako kezkei heldu zien. Izan ere, udala azterketa bat egiten ari da, inauterietako zarataren eta segurtasunaren inguruan, eta hilabete honetan bertan esku artean izango dituzte emaitzak. «Inauteriak umorea oinarri duten jaiak» direla baieztatuz, «errespetua» ere jai horren zutabeetan jarri zuen Peonek eta, bi faktore horiek uztartu ahal izateko, ezin-

bestekotzat jo zuen neurriak hartzea: «Abenduan jasoko ditugu azterketa horren emaitzak eta, horien arabera, inauterietako eragileekin elkarlanean adostu beharko ditugu hartu beharreko neurriak».

HAURREN, EMAKUMEEN ETA EUSKALDUNEN ESKUBIDEAK

Azaroaren 20ko Haurren Eskubideen Nazioarteko egunaren harira, Haurren Hiria proiektuko hiru parte hartzailek adierazpen instituzionala irakurri zuten plenoan. Besteak beste, beren eskubideen aldeko artikulua zerrendatu osasun, hezkuntza, aisialdi, lan, bizitza pribatu, informazio, iritzi eta adierazpen askatasunari buruzkoak-, eta ordezkari politikoei gogorarazi zieten haien egitekoa dela haurren eskubideak defendatzea.

Horren harira, Gaztematika proiektuaren sarera batzeko proposamena ere onartu zuen udalbatzak, haur eta gazteen sustapenerako politikak indartzeko.

Adierazpen instituzional gehiago ere izan ziren plenoan, eta indarkeria matxistaren aurkako testua eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira adostutakoak ere hizpide izan ziren. Azken horri lotuta, 2020ko Euskaraldiari jarri zioten fokua, gizarte aktibazioari eta adostasunari deituz: «Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarpenaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna, bai baitakigu ez dela hizkuntza normalizaziorik, lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez badago».

Azkenik, Arkaute akademiaren eta udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartu zuen plenoak, aho batez, hutsik dauden lau udaltzain plaza betetzeko-hautaketa prozesurako. Alderdi guztiak ados azaldu ziren lankidetzarekin, eta EH Bilduk Udaltzaingoak «herri izaera» mantentzea eskatu zuen,

Aldaketak izango dira Lurreko Telebista Digitalean

Erredakzioa

Europako agindu bat dela eta, 2020. urteko ekainaren 20rako libre utzi beharko da 700 MHz-eko banda, telefonia mugikorren bosgarren belaunaldia -5G delakoa- ezartzeko. Horregatik, Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) frekuentziak aldatzeari ekingo diote.

Prozesuan ez da telebista kateirik desagertuko, eta herritarrek ez dituzte telebistak eta LTD deskodegailuak aldatu beharko. Hori bai, zenbait eraikinetan instalazioa aldatu beharko dute, telebista seinalea jaso ahal izateko, eta diru laguntza eskatu ahal izango dute horretarako, www.televisiondigital.es helbidean. Udalak jakinarazi du, behin betiko itzaltzea gertatu bitarte bi frekuentziak emititzen ariko direla.

Kontsumitzaile bulegoa Gorosabel eraikinean berriro

Erredakzioa

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa Gorosabel eraikinean da berriz, eta asteen hiru egunean eskainiko du zerbitzua: astelehen, astearte eta asteazketan, 09:00etatik 14:00etara bitarte. Kontsumitzaile moduan informazioa eta aholkularitza jaso nahi dutenek, dena den, hitzordua eskatu beharko dute aurrez, 616 64 78 35 telefono zenbakira deituta.

Tolosaldeko herritar guztiei begirako zerbitzua da, eta aholkularitza, kexa eta salaketen bideratzea nahiz prestakuntza lantzen dituzte.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Ile apaintzailea. Tolosako IRRIKA Ile-apaindegiak esperintziadun ile apaintzaile bat behar du, arratsaldetan lan egiteko, lanaldi erdian. Interes dutenek, dei dezatela 943 50 84 93 telefonora.

Garbiketa lanak. Tolosan, esperientzia duen pertsona bat behar dugu elkarre bat garbitzeko. Lanaldi erdian arikatuz, goizez eta arratsaldean (asteazketatik astelehenera, jai egunak barne). Ezinbesteko baldintza: esperientzia izatea. Inte-

resa dutenak, jar daitezela harremanetan: 943 67 06 26.

Ettxeko lanak. Pertsona bat behar da, Tolosan, etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 688 88 82 07, 12:00etatik 15:00etara bitarte deitu.

Zaintza lanak eta etxeko lanak.

Adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu, Tolosa erdigunean. Asotehenezik larunbatera egin beharko luke lan, 40 orduz. Interes dutenek dei dezatela 600 56 207 3 zenbakira.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Zizurkilgo Kaxildako bi gazte auzipetuei babesa azaldu diete

Apirilean okupatu zuten Kaxilda gaztetxeko bi gazteak atzo pasa ziren epailearen aurretik; babesa agertzeko elkarretaratzea egin zuten, Tolosan

Erredakzioa Tolosa

Aiztondo Gazte Asanbladak deituta Tolosako epaitegiaren aurrean elkarretaratzea egin zuten, bi gazte auzipetuei elkartasuna adierazteko. Atzo pasa ziren epailearen aurretik, Tolosan.

Apirilean okupatu zuten Kaxilda, 17 urtez hutsik egondako pabiloi bat. «Kaxilda gaztetxea langile klaseko pertsona orori irekitako gaztetxea da, hau da, guk ez dugu gaztetxe bat okupatzeko gure behar pertsonaletarako. Hortik eta harago doan proiektua da», azpimarratu dute Aiztondo Gazte Asanbladako kideek. «Bi hauei tokatu zaie, eta okupazio delitua da egozten zaiena. Baina beste edozein izan zitekeen, eta elkartasuna adierazteko elkartu gara. Bi pertsonen izenak daude hor, baina kolektibo oso bat gara. Eta ez gu bakarrik, baizik eta, Euskal Herriko gure mugimendua elikatzen duten beste kolektibo asko dauke».

Era berean, gaztetxearen oku-



Elkartasuna adierazi zieten hainbat gaztek auzipetutako bi kideei. E. MAIZ

pazioa ez dela auzi isolatu bat nabarmendu dute: «Horregatik deitu dugu elkarretaratzea, bi pertsona horiei elkartasuna adierazteko eta ikusteko ez gaudela bakarrik. Denok sinesten dugun estrategia politikoei edo mugimenduei erantzuten diete gaztetxeen okupazioek. Aurrera jarraitzeko instrumentu moduan ikusten ditugu gaztetxeak», azaldu dute.

Hurrengo egun edo hilabeteetan jakingo dute zer egozten dieten bi gazteei, eta kaleratzea

emango den edo ez. «Ezinegon handia» bizi dutela diote gazteek.

Fiskaltzak gaztetxearen berehalako hustea eta 1.100 euro inguruko isuna ezarri nahi die bi auzipetuei. Hala, dirua biltzeko ekimenak antolatu dituzte, eta aurrera begira ere mobilizazioei adi egoteko deia luzatu dute. Kaxilda gaztetxeari funtzioa ematen hasiak direla esan dute, eta «Kaxilda eta eskualdera begirako proiektu ezberdinekin» lanean ari direla.

Herritar guztiei aurkeztuko diete protokoloa, bihar

Ibarrako Protokolo Taldeak hilabeteetan egin duen lana aurkeztuko du, 19:00etan, kultur etxean

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Protokolo Taldea iazko udan hasi zen bere lehen pausok ematen, herrian gertatutako eraso matxista baten harira. Orain, hilabeteetan egindako lana, herritarrei aurkeztuko diete. Bihar, 19:00etan, kultur etxean egingo dute aurkezpena, eta herritarrek protokoloa martxan jartzean zer egin behar duten azaltzeko izango da.

Protokoloa garatzeko asanblada irekien bidez egin dute lan, eta taldetxo bat osatu zuten, «etorkizunean eman zitezkeen erasoei modu kolektiboan eta

antolatuan erantzun ahal izateko». Herriko plazan aurkeztu dute protokoloa, baina, orain, herritarrei azaldu nahi diete zer den egin behar dutena protokoloa martxan jartzean. «Izan ere, eraso matxisten aurkako erantzuna bateratua eta irmoa izan dadin, garatu dugun protokoloak herritarren inplikazioa eskatzen du», adierazi dute taldetik. Eta, «ezinbestekoa da herritarrek ere keinu txiki bidez euren aletxoa jartzea. Soilik guztion indarrak batuz lortuko baitugu eraso matxistei erantzutea, eta bide horretan, desagerrarazteko pausok ematea».

Badalonan abestuko du Txintxarri abesbatzak, etzi



Alegiako Txintxarri abesbatzako kideak. T. GOMEZ

Nerea Pikabea Alegia

Alegiako Txintxarri Abesbatzak hiru eguneko bidaia egingo du Kataluniara abenduko zubian. Zehazki, Badalonan emanaldi bat eskainiko du ostiralean, hilak 6, bertako Aita Karmeldarren elizan, 20:00etan. Badalonako Betulia abesbatzak gonbidatuta abestuko dute alegiarrek.

Badalonako Betulia abesbatzarekin duen hartu-emanetik sortu da emanaldia eskaintzeko aukera. Iazko urrian, Txintxarri Egunean abestu zuten kataluniarrek Alegian, eta orain, Alegiako abeslarien txanda iritsi da.

Badalonako Betulia abesbatzak antolatu du ostiraleko emanaldia. TV3 telebistako *La Mara-*

to elkartasun proiektuaren laguntza izango du emanaldiak; gaur gaurkoz sendabiderik ez duten gaixotasunen ikerketarako proiektua da *La Marato*.

Bi zati izango ditu emanaldiak: lehendabiziko zatian Txintxarrikoek abestuko dute, eta bigarrenean, berriz, Badalonako abeslariak. Eguberriak izango dira laster, eta horregatik, Eguberri soinuak izango du emanaldiak. Kataluniako nahiz euskal kantutegiko doinuak izango dira nagusi. Amaieran, *Al meu avi* habanera ezaguna abestuko dute elkarrekin. Ondoren, batera afalduko dute bi abesbatzek. Bartzelona ezagutzeko baliatuko dituzte gainerako egunak Txintxarri abesbatzakoek.



BIDANIA-GOIAITZENERE, TIPI-TAPA

Saiaz Mankomunitateak Tipi-Tapa Bidania-Goiatz programa martxan jarri du, herritarren artean ohitura osasuntsuak bultzatzeko. Ostiralean izan zuten Tipi-Taparen lehen saioa. Bidaniko frontoian bildu eta hizketalditxo baten ostean, industriagune aldera joan ziren. Saioarekin amaitzeko, Kontzeju tabernan hamaiketako egin zuten. Tipi-Tapa programa herriko eragile ezberdinekin batera jarri dute martxan, herriko gizarte langileak, medikua eta udal ordezkaria izan ziren bertan, esaterako. Hurrengo saioa abenduaren 20an izango da eta parte hartu nahi dutenek izena emateko 943 68 11 28 telefono zenbakira deitu beharko dute. ATARIA

#HITZOLARIAK

Zelardi

Ez zelai ez belardi.

Petzaka

Jan ondoren leporaino gelditzen zarenean bete beteta.

Zapatila txiñalka jarri

Zapatila atzealdea zanpatuta jartzen dugunean, erabat sartu gabe alegia.

Pureka

Kalabazaz egindako purea.



Zer egiten du hitzolari batek?

Jendeak aurretik ezagutzen dituen hitzak, esanahi berria hartu dutenak edota hitz berriak proposatu. Hau da:

- Gure herrian edo sektore jakin batzuetan erabiltzen diren hitzak zabaldu eta azaltzea.
- Lehendik ere bazeuden hitzak baina orain esanahi berria izan dezaketenak plazaratzea.
- Hitzen esanahiarekin edo sonoritatearekin jolastuz, hitz berriak sortzea.

Nola zabaldu daitezke?

Plaza digitala. #hitzolariak traola erabili eta zabaldu.
Herriko plazak. Euskararen Egunari bueltan herriz herri egingo diren ekitaldietan zabaldu.



Fleming herri eskola, Zubimusu ikastola eta Ernioabeako ikasleek elkarrekin ospatu zuten abenduaren 3a. A. IMAZ

Eskualdeko hitzolariek hiztegi bat osatzeko lain hitz sortu dituzte

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu da eskualdeko herrietan; Galtzaundiren ekimenarekin haur, irakasle eta herritar ugarik egin dute bat

A. Imaz

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zuten atzo Tolosaldeko herrietan. Aurtengoan guztien edo gehienen arteko lotura #hitzolariak traola izan da. Galtzaundik bota zuen proposamenari ederki erantzun die eskualdeko herritarrek; hitz zaharrak berrituz, berriak asmatuz eta euskararekin jolas eginez.

Adibide zehatzak aipatzen ha-

sita, Amasa-Villabonako ikastetxeak elkarrekin atera ziren kalera atzo goizean. Malkar Plazan 60 bat ikasle-hitzolari elkartu ziren eta bakoitzak hitz bat jarri zuen zintzilik sarean.

Gauza bera egin zuten Alkizan eta Iruran. Berrobin, kantu jiran elkartutako herritarrek hartu zuten hitzolari papera, hitzez osaturiko murala betetz. Tolosan hitzekin jolasean ibili zirenak May Gorostiaga eta Amaia Agirre izan

ziren. Antzerkia eta bertsoa uzartu zituzten hitzolarien begiradapean.

Amezketan eta Altzon, besteak beste, antzerkia eta karaokea izan zituzten.

Abenduaren 3a amaitu ondoren, Galtzaundikoen lana izango da eskualdeko hitzolarien hiztegia osatzea eta sortzea. Sare sozialetan, herriko plazetan eta ikastetxeetan izango dute non aukeratua.

EGITARAUAK

Albiztur

Eskola kanpoan hitzak txertatzeko buzoibat jarri dute.

Alegia

GAUR, ABENDUAK 4

19:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, kultur etxean.

Alkiza

GAUR, ABENDUAK 4

19:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, Fagus Alkiza interpretazio zen-troan.

Amasa-Villabona

BIHAR, ABENDUAK 5

17:30. *Haran sorginduaren bilahau-* rrentzako filma eta txokolate jatea, Onddo Gazte Asanbladak antolatuta.

Belauntza

ABENDUAK 8, IGANDEA

Golzean zehar. Taberna inguriko puntu bat hariz beteko dute eta bakoitzak hitzak idatzi eta zintzilikatzeko aukera izango du.

12:00. Bea Larrañagaren eskutik, *Hemendik Parisera* ikuskizuna.

Ondoren, hamaiketakoa.

13:30. Asier Kidam magoaren ikuskizuna.

Bidania-Goiatz

GAUR, ABENDUAK 4

21:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia, erabilera anitzeko gelan.

ETZI, ABENDUAK 6

12:00-14:00. Kantu bira herrian zehar. Hasiera eskolako jolastokian emango zaio, segidan Goiatzera igo-

ko dira eta ondoren, Bidaniara jaitsiz amaituko dute.

Ikaztegieta

BIHAR, ABENDUAK 5

18:30. Hitzolariak: Elkartean hitz guztiak bilduko dituzte eta afari-merienda ere egingo dute.

Tolosa

GAUR, ABENDUAK 4

18:30. Bernardo Atxaga idazleak *Hitzaldia euskal literatura zaharriar buruz Martuteneko kartzelan* irakurraldi dramatizatua eskainiko du, Euskaltzaindiaren Mendeurrenaren barruan. Jose Kruz Gurrutxaga aktorearen laguntza izango du Atxagak agertokian.



Altzoko ikasleek karaokea egin zuten eskolan. Amezketan, antzerkia eskaini zieten herritarrei eskolako ikasleek. A. IMAZ



Izurako ikastolako haurrak, urtero bezala, kantuan eta dantzaz ibili ziren herriko plazan. Alkizan, hitzolariek plazan jarri zuten sarea osatu zuten. A. IMAZ



Berrobin kantu jira plazan egin zuten. Ondoren, murla osatu zuten hitzez. Tolosan May Gorostiagak eta Amaia Agirrek emanaldia eskaini zuten, Zerkausian. A. IMAZ



Zizurkilen euskara ikasten ari diren herritarrek mintza praktika egiteko aukera dute mintzalagun egitasmoari esker; Astean behin, ordubetez, ez dute aitzakiarik behar euskaraz barra-barra aritzeko.

Euskaraz aritzeko (g)uneak

Jon Miranda Zizurkil

Oso eskertuta daude Lurdes Urkizu, Mari Hernandez eta Arantxa Hernandez. Euskara ikasten ari dira, eta mintzalaguna egitasmoari esker, astean behin, ordubetez, euskaraz praktikatzeko aukera dute. Zizurkilen, guztira, 11 lagun dira proiektuan parte hartzen ari direnak, 4 taldetan banatuta. Gehiago ere badaude izena emanda, baina gidari lana egingo duten euskaldunak falta dituzte. Horregatik Zizurkilgo Udalak euskaldun zaharrak animatu nahi ditu solaskide izatera. Udal bulegoetan, bulegoa@zizurkil.eus helbidean edota 943 69 10 12 telefonoan eman daiteke izena.

Urteak daramatza Maider Barandiaranek mintzalagun taldeetan parte hartzen. Aitortzen du, euskaltzale izanik, beretzat ekin-tza «kontziente eta militantea» dela, baina ez diola nekerik suposatzen, are gehiago, «gogobetegarria» egiten zaiola, astean behin, euskaraz aritzeko Hernandez ahizpekin eta Urkizurekin elkartzeko. Haiek egiten dituzten aurrerapenekin ia eurak baino gehiago poztzen da Barandiaran. Botilero lana ere badelako berea: zuzen esandakoak txalotu, akatsak ahal dela zuzendu, baina batez ere, animatu egiten ditu taldekideak, euskalduntzeko daramaten prozesuarekin jarrai dezaten.



Asteartero arratsaldean egiten dute hitzordua Zizurkilen mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duten herritarrek. J.M.

«Hasieran isil isilik egoten nintzen. Mintza praktika saioetan lortu dudak konfiantzari esker aurrerapauso handia eman dut», esan du Arantxa Hernandezek. Taldekideek ere aitortu diote eman duen saltoa eta hutsetik abiatuta lortu duen euskara mailagatik zoriondu dute.

Uliazpi fundazioan egiten dute lan Hernandez ahizpek eta lanposturako hizkuntza eskakizuna betetzeko hasi ziren euskara ikasten. Barandiaranen hitzetan ahal legin handia egiten ari dira, «eta hori soilik posible da hizkuntza gustuko baduzu». Ez du uste behin helduarora iritsita hizkuntza bat ikasteko egin behar den esfortzua aitortzen denik.

Urkizuren prozesua bestelakoa izan da. Elbarrenako Teodosioenean jaiotakoa da eta txikitik ikastolan ikasitakoa. Euskal Herrikan kanpora bizi izan da urte askoan eta 15 urte dira herri-itzuli zela. «Lan egonkorrik ez nuen eta oposizioak prestatzen hasi nintzen. Konturatuta nengo nire euskara zaharkituta geratu zela eta atzenduta neukana berreskuratu ahal izan dut euskaltegian, eta baita mintzalagun taldeari esker». Barandiaranek Urkizuren inguruan dio, «bihotzetik» ikasten duela, berea erabat «emozionala» dela: «Edozein esaldi osatzeari enkantua bilatzen dio eta euskara entzuterakoan asko disfrutatzen du».

HIZKUNTZA OHITURAK ALDATU

Harremanak zein hizkuntzatan eraikitzen diren, hizkuntza horretan jarraitzeko arrisku handia izaten da, ohiturak aldatzea ez baita gauza erraza izaten. Hernandez ahizpek elkarrekin ez dute euskaraz hitz egiten, adibidez. Arantxak alabarekin ez, eta semearekin bai. Txikitandik ezagutzen duen lagunarekin euskaraz aritzeko kosta egiten zaio Urkizuri eta errazago aritzen da duela gutxi euskara ikasten hasi den Hernaniko lagunarekin. Marik, berriz, izugarri eskertzen die bere lankide euskaldunei haren-gana euskaraz zuzentzea.

«Natural» aritzeko da Barandiaranentzako giltza. Asteartero Pa-

sus tabernan egiten dute hitzordua eta kafe bat hartuz aritzen dira hitz eta pitz: «Ez dugu alde aurretik ezer planeatzen, ateratzen zaigun bezala aritzen gara, eta isilunea sortzen bada ere ez gara deseroso sentitzen». Mantso jardutea eskertzen diote Barandiarani eta honek aitortzen du, «hobeto ahoskatuz» aritzen dela taldeko kideekin. «Baina badakit noiz ez didaten ulertzen eta orduan beste era batera esaten saiatzen naiz. Estimatzeko dute, gainera, ingurukoek euskalkia erabiltzea».

Adin bertsuko seme-alabak dituzte mintzalagun taldeko kideek eta horrek askotan ematen die hizpide. Baita TOLOSALDEKO ATARIAN irakurritakoak ere. Izan ere, Zizurkilgo Udalak urtebeteko harpidetza eskaini die doan egitasmoan parte hartzen ari direnei, eta horri eskerrak, aurtun, 6 lagunek jasoko dute egunkaria etxean. Udalaren esanetan, «euskara erabiltzeko egin duten hautuari bultzada ematen dio gertuko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera izateak». Hernandez ahizpek etxean jasotzen dute egunero alea eta «gustura» irakurtzen dutela diote, «ulerterraza» egiten zaiela.

Zizurkilgo Udalak euskara ikasten ari direnekiko konpromisoa berresten du era honetara. Bestela ere, euskaltegiko matrikularen %75a arte ordaintzen die ikastaro bukaeran euskara ikasleei eta mintzalaguna programan parte hartuz gero, %10 gehiago.

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Hastera doa Antton Pebet Oroimenezkoa

Erredakzioa Amasa-Villabona

Iritsi da Antton Pebet Oroimenezko Pilota Txapelketa. Urte bete pasa da azken ekitalditik eta hamar Antton Pebet Behar Zana-ko pilotari zena hil zenetik. Aurtengoan zortzigarrenez jokatu da eta parte hartzaileak, beste behin ere, afizionatu mailako onenak izango dira. Oraingo honetan, iaz txapeldun izan zen Salaberriak ez du jokatzetik izango, Aspe enpresarekin profesionale-tara jauzia eginga baitu orain gutxi. Hala ere, aipatu bezala, eskuz ari diren nagusi mailako pilotari onentsuenak Villabonako Bearzana pilotalekuan ikusi ahal dira.

Aste honetan final zortzirenak jokatu dira. Bihar 19:00etan hasiko den jaialdian, lehen partidari Gelis-Aranguren bikoteak jokatu du. Egun Ooreretako Eple taldearen izenean jokatzen dute, baina txapelketa honetan jokatzeke txartela Amezketako Zazpi Iturri taldearen izenean Santio Txapelketan txapela lortu zutenean irabazi zuten. Beraien aurkariak Hernaniko Arrieta eta Alegiko Irazustabarrena izango dira. Irazustabarrenak atzelari jokatu du: «bi esku eder ditu eta partida honetan faboritoak beraiek izango dira».

Bigarren partidari Eneko Labaka Albizturkoak eta Arbizu nafarrak jokatu dute Azpeitiko Alberdi (Jon profesionalaren anaia) eta Urruzola asteasuarren aurka. Ikusmina sortu du Albediren parte hartzeak, indar-

tsu datorren gaztea delako eta egungo Gipuzkoako txapelduna delako 1. mailan. Partida borrokatua izatea espero da.

Ostiralean berriz, Behar Zana-ko hiru pilotarik jokatu dute. Lehen partidari, Antton Pebet zenaren bikotekide Lizasok jokatuko du Aldave nafarrarekin batera. Lizasok azken urteetan ez du jokatu txapelketan, baina Anttonen heriotzaren hamargarren urteurrenean Bearzana pilotalekuko kantxan izango da. Aldave oso pilotaria den atzelaria da, pilota astintzen badakiena eta bikote ona egitea espero da. Beste bikotean, aurrean Tolosako Ioritz Egigurenek jokatu du, pilotari indartsua, eta atzelari Telletxea Albizturkoa izango da. Faborito bigarren hauek ageri dira, nahiz eta Lizasok eta Aldavek sorpresa emateko gaitasuna duten.

Bigarren partidari Behar Zana-ko pilotari diren Urbieta anaiek jokatu dute. Biak aurrelariak diren arren, Jonek atzetik jokatuko du eta Xabierrek aurretik. Jonek maila handia eman du atzelari gisa Lizasorekin bikotea osatuta. Xabier, Garfen ari den pilotaria, joko bolada oso onean dago, eta esaterako Egiako torneoa irabazi berri du. Aurkariak Kanabal eta Irurita nafarrak izango dira. Bi gazte jotzaile eta txapelketa on gehienetan maila handia ematen ari direnak.

Sarrera doakoa izango da eta saski ederrak zozkatuko dira txapelketa antolatzeke gastuei aurre egin ahal izateko.



JOSU ARTUTXA

«Aurreko jokoa egiten saiatuko naiz finalean»

MIREN LARRARTE PILOTARIA

Imanol Garcia Landa
Bidania-Goiatz

Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketan finala jokatu du Miren Larrartek (Bidania-Goiatz, 2002). Pilota mistoarekin jokatzen ari da, lau eta erdian. Abenduaren 15ean izango da finala, Barakaldon, Miriam Arri-lagaren aurka. Bi pilotariak Su-Berri elkarteak dira.

Zer suposatzen du finalera iristeak?

Poza handia ematen dit. Orain arte ez naiz behin ere iritsi Emakume Master Cup txapelketako

final batera, eta oso gustura nago lorpenarengatik.

Finalerdian 13-18 irabazi zenuen Laia Salsamendiri. Nola izan zen partida?

Nahiko parean hasi genuen partida. Gero aurreratu egin nintzaion nahiko aldearekin. Erdialdetik aurrera, baina, bera hasi zen edozein lekutatik botatzen eta askotan asmatu egiten zuen, eta partidari nahiko deseroso sentitu nintzen, egia esan. Baina eutsi egin nion, eta indarra ere gehiago dut, bera nahiko gaztea baita, eta nik uste dut horregatik irabazi nuela.

Finalean Arrillaga izango duzu aurkari, ondo ezagutzen duzun pilotaria.

Bai, ezagutzen dugu elkar. Nahiko aurkari gogorra ikusten dut. Azken bolada honetan oso indartsu dabil, sakea oso ona dauka eta nahiko lan izango dut irabazteko.

Berarekin entrenatuko duzu?
Normalean batera entrenatzen dugu, baina orain eskuak zaindu nahi ditut, eta ez dut gehiegi entrenatuko eskuak ondo izan arte.
Ze joko mota erabiliko duzu finalerako?

Nire jokoa normalean aurkariari ezkerrera botatzea da eta aukera ikusten dudanean bukatzea edo behintzat pilota mugitzea da. Badakit Miriam ni atzean edukitze saiatuko dela, bere indargunea indarra eta baztertzea delako. Ni aurreko jokoa egiten saiatuko naiz.

Lehenengo aldiz ari zarete txapelketa hau pilota mistoarekin jokatzen.

Nik uste dut aurrerantzean ere pilota mistoaren modalitateak jarraituko duela. Finalerdietan goxoarekin oso joko polita ikusi genuen, baina egia da pilota mistoarekin beste hots bat sortzen dela, beste itxura bat du.

Nola ikusten ari zara txapelketarengiroa?

Finalerdietan jende dezente zegoen, eta oso giro polita izan zen. Barakaldoko finalean ere jendea izango da. Aurreko urteetan joan izan naiz binakakoak eta ikustera eta frontoia jendez beteta zegoen.

Txapelketa honetaz gain, beste lehiaketaren batean ari zara?

Ostiral goizean Uharteko txapelketako finala jokatu du Leire Garairen aurka, lau eta erdian, eta pilota mistoarekin. Gero, aurrerago, Gipuzkoako Binakako Txapelketaren txanda izango da.

Elkarrekin

Denboraldi honetan ateratako emaitzak aztertuz, eta aurreko asteburuan Aurrera Vitoria taldearen aurka lortutako berdinketa kontuan hartuz, aste berri bati hasiera indarrez eman genion. Aipatzekoa da, aurtengo ligako mailara ohitzea kostatzen ari zaigula, garaipenak begi aurretik urrundu eta porrotak gertuago sentitzen baititugu. Baina ez dugu etsiko!

Partidari dagokionez, urduritasuna eta gogo nabaria zen gure artean, garaipena gurea izatea beharrezkoa genuelako. Oraingoan, 16:30ean Berriozarren aurka jokatzen genuen Berazubini. Haiek gu baino gorago postuan kokatzen ziren, eta horrek zeresana ematen zuen partidako konpetentzian. Jokozainak partidari hasiera eman, eta 11. minutuan, Maria Martijaren gol ikusgarriarekin aurre hartu genuen markagailuan.



Aulkitik
Ainhoa Bengoetxea
Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Hau horrela, lehenengo zatiari gogotsu ekin genion, markagailuan gora egin nahian. Nahiz eta atsedenaldira bitarte gol gehiagorik ez sartu, Imanolen hizketaldia jaso ondoren, bigarren zatian segituan aurrera egin genuen. 52. minutuan, Saioak bi eta hutsak lortu zuen. Jada, partida modu berezi batean dastatzen ari ginen, eta garaipena gureganatzeko gogo nabaria zen. Hala ere, zapora gazi apur bat dastatzea tokatu zitzaigun, Berriozarren partidari 2-1ean ipini baitzuen. Partidari amaiera emateko ordea, nik 75. minutuan, hainbeste esperotako gola sartu nuen, markagailua 3-1 utziz.

Bestetik, gogoan hartzekoa da lesionatuen behar handia sumatzen dugula. Guztiok batera jokoa ez aritzeak eragina du gutariko bakoitzarengan, eta zeresanik ez, taldearengan. Bihotzez animoak zuetako bakoitzari, eutsi gogor! Ahaztu gabe, talde guztiaren izenean Juneri pankarta bat egin genion, dator-kion ebakuntzan ilusioz aurrera egiteko.

Bestetik, gogoan hartzekoa da lesionatuen behar handia

Orain, zubia tartean izanik, atsedenerako tartetxo bat dugu, pilak berriz betetzen joateko eta jarraian Oiarzunen aurka topera jolasteko.

Gogoan izan neskak, aurrera elkarrekin!



ASTEAZKENA, 2019KO ABENDUAK 4
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 04

AGENDA

Deialdiak

Tolosalde. Euskararen Egunekeo ekitaldiak 4. orrialdean.

Tolosa. Bilera TOPAren lokalean, Abastosen, 19:00etan. Hamaika arrazoi grebarako.

Tolosa. Biaste Laponiako basoan, udazken koloretan. Emanaldi tertulia Joxe Martin Otaegirekin, Bidaia-rien Txokoan, 20:00etan.

Alegia. Zine gaua: *The War of Democracy*, gaztetxean, 20:30ean.

Tolosa. Olentzeroren Basoan izen ematea, Bidaia-rien Txokoan, abenduaren 5era arte, 17:00-20:00. Abenduaren 6tik 15era www.zu-mardia.eus-en. 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat dira bisitak.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde

16:30. Lotsagabe (Helena Bengoe-txea)

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (Tolosa)

22:30. Izerditan

23:30. Gaurkoan Tolosalde

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. 943673274.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943675118.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, Tolosalde Garatzenen tarte, Quark zientzia atala eta amaitzeko eskualdeko musikari batek eginiko proposamen musikala.

11:00. Desafioa. Herri kirolak, Joxe Angel Sarasolarekin.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arroza sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa Imanol Artola Felix-ekin.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Haizea aldakor bilakatu zaigu, eguna amaitzerako iparraldetik finkatuz eta termometroek koska polita egingo dute gora, 11-13 graduan joz goia. Zeru argi agertuko zaigu, batez ere, arratsalde erdira arte.



Bihar. Egun osoan ipar-haizearen eraginpean izango garenez, zerua estalita mantenduko da. Euri kontu gutxi izango dugu, baina noizbehinka euri-lagar pixka bat izango dugu. Temperaturak antzeko balioetan munituko dira eta erdiko orduetan 11-13 gradu bitartean joko dute goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



KAZETARI IZATEN JOLASEAN

Villabonako Fleming eskolako laugarren mailako gaztetxoek TOLOSALDEKO ATARIAra bisita egin zuten iragan ostiralean. Komunikabidearen erredakzioa ezagutu eta bertan lan nola egiten den ikustearekin batera, ATARIA IRRATIAN ere hitz egin zuten. Hain juxtu, kazetariaren paperean jarritz, Tolosaldeari buruzko hainbat gairen inguruko lanketa egiten aritu dira eskolan, eta horren inguruko azalpenak eman zituzten mikrofonoetan. IÑIGO TERRADILLOS

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus - 107.6 fm -



zozketak

Atarikideentzat **saski bat** daukagu



Errigorako SASKI BELTZA

Nafar hegoaldeko
uzta eskutik eskura

Zozketetan parte hartzeko **Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus



EGUZKITZA

Abenduaren 1ean
irekitzen dugu sagardotegia
Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko.
TEL: 943672613